



[www.begiko.com](http://www.begiko.com)

© Testua: 1998, ANTTON KAZABON

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-21-6

Lege-gordailua: M-16330-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Seitik gora berrargitalpen Zubia argitaletxean

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhua Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketak:

Ane Barrenengoa

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

# **Eguzkilore**

Antton Kazabon

Azaleko irudia: Jesús Sotés

begiko



*Kataxuloko Puiako Maiari,  
Trumoi lehenbailehen aska dezan.*



## Trumoi urre bilatzailea

Trumoi mutil uzo samarra zen, bakarti antzekoa eta berekoia. Basapiztia zela esaten zioten gurasoek etxean oso hitz gutxikoa zelako. Ez zen, ez, musu eta balaku zale horietakoa. Isila eta kopeta erraz zimurtzen zuen mutila zen. Ezezagunekin ere nahiko betizua eta fidagaitza. Baina lagunekin jatorra, argia eta leiala zen, gero!

Lagunekin ez zegoenean, Aiako Harri azpiko harpeetan egon ohi zen gustuen bakar-bakarrik. Etxetik noiznahi alde egiten zuen, eta berrehun bat metrora zegoen haitzulo ilun batean orduak eta zenbaitetan egunak igarotzen zituen etxera itzuli gabe. Arbasoak ere hangoak zirela eta, hara joaten zen Trumoi basatia gurasoen harrizko etxola dotorea utzita. Unaileku zuen izena gurasoen etxetxoak eta Oiartzo herriko lehenengotako artzain etxola zen. Harriz eta egurrez ku-

rioso eta txukun eraikitako bizileku eroso. 300. urte inguru izateko, nahiko aurreratua zegoen Oiartzo bailara. Beharbada, bertan bizi ziren erro-matarren eraginez edo, urte mordo baizeramaten hauek Oiartzoko Arditurriko meatzeetan lanean, burdina atera eta atera.

10 Txikitan aitonari entzunak zizkion Aiako Harri inguru haietako urre kontuak, eta mutiko-mutikotatik egunero han ibiltzen zen makila eskuan, urre bila, lurreko harri koskor eta lurrak tirrikiti-tarraka harrotuz, eta batera eta bestera astinduz. Bere artaldetxo ere bazuen eta han ibiltzen zen batetik bestera. Ederki ezagutzen zuen Aiako Harri inguru hura. Trumoiarentzat ez zen han ezkutuko txokorik ezta ezagutzen ez zuen zulorik ere. Ederki bizi zen, lasai. Tarteka bere zaldi gorria hartuta lagunengana joaten zen, eta egia esan, hauekin gero eta denbora gehiago pasatzen zuen. Izan ere, laguneren artean bazuen bat kuttuna eta bihotzez maite zuena.

Mutikoa gizontzen ari zen, hamazazpi urte bete zituenean, itxura gaitza zuen. Handia eta indartsua.

Goizero ardiak larrera ateratzen zituenean, aitonaren hitzak etortzen zitzaizkion burura behin eta berriz, eta gero eta indartsuago:



—Bai, Trumoi, bai. Ardiek azazkalekin, apaxekin ukitzeko moduan zagok hemen urrea. Lurraren gain-gainean, azaleraino aterea, motel!

Ardiei hankak altxatu eta aztarrika noiznahi hasten zen, urrearen distirak eta printzak noiz ikusiko eguzkiaren argitan. Eta azken aldian, urrearekiko sekula baino desira handiagoa zuen. Ez aberasteko gogo berezirik zuelako, ez, bere bihotzeko adiskide panpoxari munduko oparirik distiratsuenak egiteko baizik. Harentzat zituen bere ondasun guztiak, harentzat bere pentsamendu eztiak, harentzat zuen guztia.

Trumoiren bizilekua edo gordelekua, bestalde, oso toki estrategiko onean zegoen. Arditurriko meatzeetatik hurbil eta Puiako Maiaren Kataxulo izeneko leize zulotik ere gertu.

Kataxulo izeneko haitzulo distiratsu eta magikoaren misterioak erdi aztoratuta zeukan gure Trumoi, mutil beltzaran eta ausarta. Tentazio izugarriak izaten zituen kobazulo hartan sartzeko, baina ez zen ausartzen. Aitak gehiegitan gogorazten zizkion han sartzearen arriskuak.

—Ezta okurritu ere, gero, Trumoi! Ez hadi hain urrezalea izan, gizona. Urrerik gabe ere ederki bizi

izan gaituk orain arte eta hemendik aurrera ere moldatuko gaituk.

—Ez da urrearengatik soilik, aita. Urreak ere tentatzen nau, badakit, baina gehiago da haitzulo horretako misterioak eta magiak niregan duen indarra.

12 —Bueno, nahi duana. Baina ez hadi hango argitasun betearen ametsetan ito. Lehen ere badituk hire aurretik joandakoak eta betiko bertan gelditu direnak.

—Hori esaten duzu beti, baina emadazu izen bat, Kataxulon sartu eta atera gabe gelditu den baten izena bada ere. Horiek jendearen esamesak dira. Jendearen ezkutuko beldurrak eta sinetskeriak. Gainera, nik badakit zer egin behar dudan kobazulo horretan urre bihurtuta ez gelditzeko. Nahi adina urrez zakua bete, eta ondoren, kontuz-kontuz, atzeraka atera, buelta eman gabe, aurpeirik ere atzera jira gabe, ahalik eta erabat kanporatu arte.

—Eta zer uste duk, orain artekoek ez zekitela hori? Betiko barruan gelditutakoek ez zutela horren berri? Orain arte inork ere ez dik handik ir-teterik lortu. Hi ez haiz besteak ez bezalakoa izan-

go! Beraz, ken ezak ideia hori heure buru gogor horretatik.

Hasieran samurkiro hasten zitzaion arren, azke-  
nean builaka bukatzen zuen aitak, Kataxuloko is-  
torio horrekin semea temati jartzen zitzaion bakoi-  
tzean.

—Horiek guztiak kontu zaharrak direla, aita,  
jendearen esamesak, esan zaharrak. Herriaren li-  
teratura, ipuinak, aita. Nik froga egin nahi nuke,  
behintzat, ea zer demonio dagoen barru horretan.  
Gainera, badut nori eskainia hango urre bitxirik  
ederrena eta distiratsuena.

—Aberasteko irrikaz bahago, utzi ardiak eta  
lagun arteko ehizak eta jolasak, eta hoa Ardi-  
turriko meatzeetara lanera. Han urrerik ez duk  
aurkituko, baina nahi adina burdina bai. Erroma-  
tarrek ongi ordaintzen dutela esaten ditek. Nahi  
adina erreminta, ehizarako tresna, larrua... Dene-  
tik izango duk.

—Ni ez nago aberasteko irrika bizian, ez. Zuk  
badakizu hori. Nirea jakin-mina da. Kataxuloko  
harpetan zer arraio dagoen jakin nahi dut, batez  
ere. Barrura sartzeko sasoirik onena zein den ere  
badakit.

—A, bai? Eta zein duk horretarako garaia?

—Bertako dama-sorgina edo sorgin-dama hori udaberrian Jaizkibel atzeko itsasora joaten de-  
nean. Nik ez dut inoiz ikusi, baina halaxe diozue  
zuek. Beraz, Puiako Maia itsasoan dagoen bitar-  
tean, Kataxulon ez dago sorginkeriarik eta arris-  
kurik, udazkenean itzultzen den arte.

14

—A, ez? Eta hik nondik atera duk ipuin polit  
hori? Nirea ez zakiat, baina hirea bai dela ipuina.  
Nork esan dik txorakeria hori? Udaberritik udaz-  
kenera bitartean arriskua handitu egiten dela esan-  
go nitek nik. Kataxulo beti zagok sorgindua. Puiako  
Maia egon ala ez egon. Sorgin hegalaria hori ez duk  
parte onekoa, seme. Basajaun bera ere ez duk ausartzen  
ezertara, beste dama hori hara eta hona dabilenean.  
Niri hara hurbiltzea ere ez zaidak sekula bururatu.

—Nik begien bistako gauzetan sinesten dut,  
aita, eta ez jendeak asmatutako ipuinetan. Nik  
hamazazpi urte ditut eta orain arte ez dut Puiako  
Maia ditzosozko hori ikusi. Apustu egingo nuke,  
Klaudio mutur luze horrek eta bere lagun Julio  
erromatarrak honezkero baietz hango berri izan.

—Hango berri? Horixe baietz! Hik eta nik beza-  
la. Hango berri denok diagu. Eta Klaudio eta Julio

erromatarrek ere, hemen jaiok direnez, izango ez ditek, ba, Kataxuloren berri! Ez dituk handik urruti bizi. Baina, barrura, seguru ez direla sartu. Horretan hi baino zuhurragoak eta azkarragoak izango dituk. Eta sartzan badituk ere, hor konpon! Haiek urre bihurtuta betiko barruan gelditzeak ez zidak asko axola, baina ez nitek nahi hiri hori gertatzerik.

15

—Gezurra dirudi, aita, oraindik ere umekeria horietan sinestea!

—Beraz, begien bistako gauzetan bakarrik sinesten duk hik? Eta ez al duk urtero-urtero udaberri hasierako ilargi beteko gauean ikusten Jaizkibel aldera joaten suzko igitai distiratsua zerua zeharkatuz, Anbotoko sorgin guztiak atzetik dituela, aparteko ziztu beldurgarrian? Eta udazkenero ere ez al duk Jaizkibeleetik Aiako Harrira itzultzen ikusten?

—Bai, egia da. Tarteka argi batzuk ikusten ditugu zerua zeharkatzen, baina nork esaten dit niri izar ibiltari horiek Puiako Maia direla?

—Neuk esaten diat eta niri neure gurasoek, eta nire gurasoei euren aurrekoek, eta haiei aurreragoko arbasoek... Udaberrian Jaizkibel atzeko harkaitzetan ezkututzen duk, Eguzki jainkoaren

berotasunean itsaso urdinean bainatzeko. Eta Ekia-  
ren argi horia zuritzen hasten denean, udazkenean  
berriro ere Aiako Harriko Kataxulo haitzulora itzul-  
tzen duk negua urre artean epel-epel igarotzera.

—Bai, aita, bai. Ipuinak horrela dio eta oso po-  
lita da. Nik frogatu egin nahi dut hori guztia Ka-  
taxulora bixitatxo bat eginez. Dama-sorgin hori  
ezagutu eta urrezko aulki bat atera, nire bihotze-  
ko dama maitea bertan eser dadin, munduko erre-  
gina bailitzan. Eta zuretzat eta amarentzat ere  
aterako dut bitxiren bat edo beste.

—Hobe huke Julio eta Klaudiorekin hitz egin  
eta horien meatzeetan lanean hasiko bahintz,  
zoro haize horiek alde batera utzita. Eta beste nes-  
ka horren kontu horiekin ere ez al hoa azkarregi?

Azkenean, aita alde batera eta semea bestera.  
Alde banatara banatzen ziren beti, eztabaidak  
amaierarik ez zuela konturatzen zirenean. Aita  
ardiak biltzera Axeri txakurra ondoan eta Trumoi  
Aiako Harriko tontorrera bere zaldi gorriaren gai-  
nean. Han Oiartzo bailara menditsu eta berdea-  
ren zaindari eta nagusi sentitzen zen.

Han hasiko zen bailara osoari, ezker-eskuine-  
ra, begizko itzulia ematen, Gorri zaldiaren gai-

netik, biak mugitu ere egin gabe. Gustukoa zuen Trumoik Gorri, bai. Hamaika urte zituela aurkitu zuen Artikutzako erreka bazterrean eta geroztik bere gorputzeko beste zati baten modukoa zen Gorri. Ia-ia egunero egiten zuen Aiako Harrirako joan-etorria. Lo lasai egiteko, tontor horretara igo behar zuen egunero, eta bakar-bakarrik, gainera, barruko txori guztiak lasaituko bazitzaizkion.

17

Handik dena zuen bistan eta oinpean. Eskuin aldetik hasita, Pikoketako gaina zegoen eta bertan Pilotasoro izeneko zelai berde, goxo eta goroldiozkoa ikus zitekeen. Huraxe zen Trumoi eta bere laguneren pilotaleku bikaina. Hantxe egiten ziztuzten euren arteko partiduak eta desafioak. Norgehiagoka galantak, bai!

Urrutirago, itsasertzetik, Burdingalarainoko bidea. Beheraxeago Ameztokieta zegoen, bere Mairu baratz eta guzti. Ameztokietakoa zen Trumoiren lagun Luberri ttikia. Aurrerago Altziko tontor berde haizetsu eta zoragarria. Han lizar arbolak eta gereziondoak etengabeko dantzaldian mugitzen ziren. Alde guztietako haize mota guztiek egiten zuten topo. Gero, Arkaleko burkail tinko eta tenteak.

Atzerago Jaizkibel mendi ilun eta serioa, itsasoari bere lekuan eusten, sendo eta leial bere lanean. Ezker aldetik, berriz, Bianditz mendi gaina, bere triku harri eta guzti. Ondoan, Basateko kas-  
koa, Artikutzako erreka...

18 Aurrez aurre Oiartzo bailarako herrixka. Eta Aiako Harriaren atzeko aldean Nafarroako herriak, eta Iruñera eta Tarragonarainoko bide lu-  
zeak mendi artean zehar.

Hantxe sentitzen zen gustura Trumoi mutil gaztea. Munduko errege. Jaun eta jabe. Handik goitik begiratzean, Kataxuloko urreak eta Arditurriko burdinak txikikeriak iruditzen zitzaizkion. Han goian, Arkale inguruko Burkailpeko andreño eztizkoa besterik ez zuen buru-bihotzean.



## Klaudio ere erbitan

Unailekuko Trumoi, Ameztokietako Luberri eta Sarobeko Sembe bailarako ehiztari trebeenetakoak ziren. Hirurak lagun handiak eta mutil bizkorak eta biziak. Egunsentiko lehenengo eguzki irripekin batera jaiki eta ehizara joaten ziren etxeoak elikatzeko. Erbitarako afizio izugarria zuten. Zaldiz joaten ziren bi edo hiru egunetik behin, eta normalean, zakukada dezentearekin itzultzen ziren etxera.

19

Trumoi habailari aparta zen. Nahi zuen tokira eta distantziara jaurtitzen zuen harria bere habailarekin, zaldi gainetik jaitsi ere egin gabe. Iaioa benetan mutila, trebetasun itzelekoa. Larruzko habailak erabiltzen zituen, eta gerrian hiru edo lau zituela aterako zen erbitara. Harri kozkorak ere erreka izkinean aukeratzen zituen aurrez. Harri biribil-biribilak eta leun-leunak, jaurtiketa-

rako aproposenak, ederki apartatuta izaten zituen zakutxoan.

20 Saroben elkartzen ziren, Semberen etxe atarian, hirurak batera ateratzeko. Goiz gorri zoragarri batean, adarrak ere lepotik zituztela, han atera ziren tximista bezala Bianditz aldera, erbi korrikalari eta saltarien atzetik korrikaldi batzuk egiteko asmotan. Hirurak zaldi gainean, batak irrintzi, besteak garrasi eta hirugarrena adarra joz. Egun hartan, ordura arteko marka guztiak hausteko asmotan irten ziren.

Oielekun barrena, pagope ospeleko orbelak ederki harrotu zituzten hiru zaldun ehiztari erbi-zaleek. Erbiak nondinahi ateratzen ziren tarrapataka eta iheska, lau metroko jauziak eginez. Trumoi atzetik habaila eskuan, batera eta bestera harri biribil-biribilak bata bestearen atzetik jaurtiz, eta airea behin eta berriz zulatuz.

Luberrik eta Sembek lantza txiki eta labur batzuk erabiltzen zituzten erbitarako. Hauek erbia ahalik eta gertuen nahi izaten zuten, bertatik bertara, ugaztun txiki saltarinak lurrari josita uzteko. Horrela sufritu ere gutxiago egiten zutela zioten. Bi teknika, bi era desberdin, baina biak eraginkorrak.

- Hortxe duk, Sembe!
- Han aurrean, Trumoi!
- Atzetik bestea, Luberri!
- Bi horko sasian ezkutatu dituk!

A zer-nolako festa antolatu zuten egun hartan ere! Berez bizibidea zena, ehiza, joko eta jolas bilakatzen zen hiru lagun hauek erbitan elkartzen zirenean. Zenbaitetan norgehiagoka ere bai, haserretzera iritsi gabe, baina, ez pentsa!

21

Oielekutik gora Basateko kaskoraino heltzeko, bazituzten bosna erbi. Ez zen batere eskasa izan egun hartako ehiza. Baina hartan ezingo zuten utzi. Seigarrena harrapatzen zuena izango zen garaile. Ez zeuden beste erbi baten premian, baina han ohorea zegoen jokoan, gero.

Horrelakoetan Luberri txikia oso urduri jartzen zen. Txikiena zen eta oso gutxitan irteten zen garaile. Lantzatxoa gerri-gerritik hartuta, bi begiak irten beharrean, han abiatu zen goitik behera, Otsazuluetako harrietxola zegoen txokoruntz.

Otsazulueta inguru hura oso paraje ona zen erbitarako. Eta ez horretarako bakarrik, beste edozein ehizatarako ere bai. Oso leku ezkutua eta sal-

bajea zen hura. Batzuek mundua han bukatzen zela esaten zuten. Erbia eta untxia, behintzat, ugari izaten zen han.

22 Bidean, ordea, sagardi azpi batetik nor aterako bere zaldi zuri-beltzarekin, eta Klaudio alajaina! Erromatar gaztea. Bueno, erromatarrak haren aurrekoak, Klaudio Oiartzon jaioa zen eta. Arditurriko meatzeetako etxetxo haietakoren batean. Aitak han egiten zuen lan, eta mutila, berriz, bertako euskaldunekin nahasi nahian zebilen aspalditik.

Honek ere bospasei erbi bazituen zintzilik. Trumoik laster eraso zion:

—Hemengo erbiak ere hireak al dituk? Ez al duzue nahikoa Arditurriko erreka inguruko burdina meatzeekin eta hango ehizarekin? Bazter guztiak eskas dituzue, gero! Mutilak! Ezin etxean errenditu!

Klaudio zertxobait zaharragoa zen, hemeretzi urtekoa, eta halako burlaize batekin erantzun zion Trumoi basapiztia odolberoari:

—Hara gure urre bilatzaile asegaitza. Oiartzoko mendi guztiak hireak al dituk? Kabituko ote duk gure lehoikume domagaitza! Ni ere hemengo nauk, gero! Nire familiak urteak zaramatzak

Oiartzon, Arditurriko meatzeetan lanean. Eta neu ere hemen jaioa nauk, behintzat. Zer egin behar diat behingoz onar nazazuen?

—Euskalduna izan. Horixe bakarrik, gutxi iruditzen bazaik. Eta hi erromatarra haiz. Hemen jaioa, baina guretzat erromatarra. Eta zuek nahikoa duzue guri kendu zeniguten Arditurriko parajearekin. Hura ez ahaztu kendutakoa dela. Edo zer esan behar didak, Arditurri Erromatik ekarria duzuela? Hona etorri zineten eta inori ezer esan gabe, leku haren jabe egin zineten. Ba, orain han kabitu. Bestela, laster zarete pixkanaka-pixkanaka Oiartzo osoaren jabe. Hemen jaioa izango haiz, baina ez haiz hemengoa. Belar beretik jango diagu, baina ez gaituk berdinak, ez. Tontoa duk, ba, ehiztaria!

—Zer esan nahi duk horrekin, Trumoi, hemen-dik bidali egiten nauala? Nik uste nian hemengo mendiak guztionak zirela.

—Jakina mendia guztiona dela! Arrazoi duk. Guztiona, bai, baina oiartzoar guztiona. Horixe behar genian, kanpotik etorri eta agintzen jarri. Ez genian besterik behar. Bazter guztietan zeuk jaun eta jabe.

Ez zen nolanahi kokilduko Unailekuko Trumoi bizkorra, ez. Urte pare bat zaharragoa zen Klaudio, baina hala ere, ez zuen bururik makurtuko.

Bizilagunak ziren biak, izan ere, Unaileku Arditurritik oso hurbil zegoen, biak Aiako Harriaren azpialdean, baina hala ere, ez zegoen edozein modutan barkatzeko, ez.

24

Sembe eta Luberri ere urduri jartzen hasiak ziren eta ez zuten gauza onik ikusten. Erromatar gaztearen ezpata luzeak distira handia egiten zuen, eguzkiaren printzekin topo egiten zuenean. Luberri txikiaren lantzatxoak ez zuen halako distirarik eta Sembek ere ez zeukan Klaudiorekin borrokan hasteko gogorik.

—Goazen etxera, Trumoi. Hamabost erbi nahikoak dituk gaurkoz. Gainera, bazkaltzeko ordua diagu, itzultzeko ordua. Gauzak ez ditiagu euren onetik atera behar. Utzi bakean Klaudiori eta goazemak!

—Bai, arrazoi dik Luberrik, Trumoi. Zertan haserretu behar diagu? Beste batean hitz egingo diagu patxada gehiagorekin.

—Zoazte, bai. Segi etxera gurasoak bila etorri baino lehen. Hamabost erbi asko dituk, bai. Han-

ditzen zaretenean ehiztari onak izango zarete, seguraski.

—Agur, Klaudio. Suertea duk. Gaurkoz libratu haiz. Baina berriro ere izango diagu elkarrekin egoteko aukera. Hago lasai. Izango diagu elkarren berri. Oilategi baterako bi oilar gehiegi dituk. Badakik. Eta oilar arrotzik ez diagu nahi gurean. Horretarako etxekoa gailendu beharko duk. Eta hik ez duk hainbesteko kemenik. Euskaldunak arraza berezikoak gaituk. Ez nazak gehiegi tentatu.

25

Sembek eta Luberrik erdian hartu zuten Trumoi eta etxeruntz abiatu ziren.

—Horrela ez diagu ezer ere egingo, lagunak. Martxa honetan laster dituk gure etxeko atarrietan erromatar lotsagabe hauek. Eta orduan beranduegi izango duk. Hauei gogor egin beharra zagok, bestela, akabo. Hauen mende jartzen bagaituk, gureak egin dik! Geure etxean geuk agindu behar diagu, gero. Bestela toki onean gaudek!

—Noski, Trumoi. Hori bazakiagu. Baina guri zer axola zaiguk Klaudiok bi edo hiru erbi harripatu dituela eta?

—Bi edo hiru erbi. Beraz, hori al duk guztia? Hori ez duk kontua, ez. Nire aitak dioenez, orain

berrogeita hamar bat urte, 250. urtean gutxi gorabehera, inguru hau zaldiz josia omen zegoan. Zaldi basatiak nonahi. Zaldiak librean bazter guztietan. Behar genituenean hartu eta kito! Oihanean sartu, mendira igo, bat aukeratu, hartu eta etxera.

Aurrera jarraitu zuen Trumoik bere haserreakin:

26

—Orain non zaudek zaldi haiek guztiak? Erromatarren legioan. Arditurriko meatzeetan. Burdinolako bidean eta Iruñeko edo Tarragonako bidean. Klaudio eta bere antzeko oilartxoek dozenaka edukitzeko eta euren lasterketa zoro horietan luzitzeko. Denak erromatar horien mende eta esku. Horien zerbitzuan lanean eta garraio gure zaldi menditarrak. Horra non dauden gure zaldiak! Oiartzoko zaldi eder, indartsu eta bizkorak. Orain guk zaldiren bat behar badiagu, ea noraino joan behar izaten diagun, baten bat aurkitu nahi izanez gero.

—Ez duk horrenbesterako, Trumoi. Hire Gorri ere aski polita duk eta heuk harrapatua, gainera. Eta Semberena ere bai. Baita nirea ere. Oraindik badituk nahiko zaldi, motel! Gainera, Klaudio ez duk hain gaiztoa. Txikitatik gurekin ibili nahian



zebilek eta guk ez zioagu horretarako aukerarik ematen. Mutil ona ematen dik eta beharbada lagun ona izan zitekean.

—Baietz, baietz, nola ez! Lagun onek ez ditek eurena ez den herria zaldirik gabe uzten, euren kapritxoetarako erabili ahal izateko. Lagun onak ez dik horrelakorik egiten. Ni egunen batean beste herriren batera joaten banauk bizitzera, neuk hala nahi izanda, aurreneko gauza, hangoak errespeta-tzea izango duk eta ez indarrez bertako lurren eta ondasunen jabe egin. Eta Klaudioaren aurrekoek horixe egin ziaten. Beraz, Klaudio bera ere ezin gure lagun izan. Erromatarrak gure etsaiak dituk.

—Hori horrela izango duk, Trumoi, baina Klaudio ez duk, behintzat, gure etsaia. Hori heuk ere ongi dakik. Haren aurrekoek Arditurri indarrez okupatu bazitean ere, Klaudiok ez dik haren errurik izango.

—Ez, ez. Zuek segi horrela, eta ohartzera, gure neskak ere eurek eramango zizkigutek. Iku-siko duzue!

Ohartzera Semberen etxean ziren, Saroben. Bertan gelditu ziren bazkaltzen. Bakoitzak erbi bana larrutu, sua egin eta hantxe jarri zituzten hi-

rurak erretzen, Sarobe harrietxola dotorearen atarian. Semberen aitak sagardoa atera zuen eta dena prest zegoen haginak dantzatzen hasteko.

—Zer moduz joan zaizue ehiza, mutilak?

—Primeran, aita. Bost erbi bakoitzak. Ez dago batere gaizki!

28 —Ez horixe, seme. Hamazazpi urte besterik ez eta oso trebeak zarete. Hogei urtetarako, hemen-dik Iruñeraino ez duzue kontrariorik izango erbitan. Laster basurdetan ere hasi beharko duzue. Eta nork zakik? Egunen batean leize hartz beltzen bat ere igual errendituko duzue. Ea Landarbasoko harpetan ezkututzen den horren larrua noiz ipintzen diagun eguzkitan xukatzen!

—Bueno, bueno, utz ditzagun hain urruneko kontuak eta has gaitezen bazkaltzen.

Kontent jarri zen, bai, Sembe mutil gazte eta liraina aitaren losintxekin. Bere ile luze horia atzeko aldean txirikordatua zeukan, eta ordurako alde batera eta bestera dantzan jarria zuen, inon ere ezin kabiturik. Aitak esan zituenak erabat sines-tuta baitzegoen.

—Ahaztu baino lehen, ba al dakizue gaur zer egun den, gazteak?

—Bai, badakigu, bai, ez gara hain tontoak.

—Orduan, gauean berriro elkar ikusiko diagu.

Hil honetan Ameztokietan izango duk.

—Bai, iluntzerako hantxe izango gara.